

► USURBIL

Artzabal baserria kultura ondasun gisa monumentu izendatu du Eusko Jaurlaritzak

Udalak aurkeztutako alegazioak direla eta prozesua atzera eramanda

JOSU ARANBERRI

USURBIL. DV. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak Artzabal baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izandapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea erabaki du berriz ere. Erabaki bera hartu zuen pasaden urteko maiatzean, baina Udalak aurkeztutako alegazioak erantzun ez zirenez, honek berraztertze errekurtoa jarri zuen eta Eusko Jaurlaritzak prozesua atzera eramanda alegazioei erantzutea erabaki zuen.

Udalaren alegazio-idazkiak bi zati zituen. Batean higiezinaren kultur interesa baloratzen zen, eta bestean egoera juridikoa eta Udalak abian jarri dituen ekimenak azaltzen ziren.

Higiezinaren balorazioari dagokionez, balio desberdinak hartzen ditu kontuan udalak alegazioa aurkeztekoan. Duela gutxi argitalpen batean Josu Tellabideren aipamen labur bat baino ez dela aurkitu argudiatzen zuen udalak, zeinean XVIII. mendean kokatzen baitu higiezinaren jatorria. Horregatik, interesa, hortaz, tokikoa baino ez dela dio alegazioak. Objektiboki ez duela balio artistiko apagarrik dio udalak, nahiz eta eraikuntza-elementu batzuek zerikusia izan baserriaren ohiko arkitekturarekin. Baina ez dute aparteko baliorik (fatxada nagusiko zutabe bat salbu).

Balio urbanistiko, etnografiko, zientifiko edo soziala konatuan hartuta ez omen du monumentu izendatzeko adinako baliorik, eraikinaren eraikuntza-erreferentzia tradizionalak ez baitute «interes publikoaren mailako garrantzirik». Azkenik, balio tipologikoari dagokionez, egin diren esku-hartzeek erabat desitxuratu dute argudiatzen da, egiturazko elementu batzuk kendu eta hormigoizko armatuzkoak jarri direla esanaz. Oraingo egoeraren gainean, Usurbilgo Udalak honako hau alegatu zuen: «Udala da higiezinaren



XVIII. mendeko baserri hau Euskal Kultura Ondarearen zerrenda orokorrean sartu dute. [JOSU ARANBERRI]

titularra. Lehiaketa bat deitu du baserria birgaitzeko, eta erabilera berri bat esleitu dio ekipamendua gisa. Proposamenak bat zetozen eraikinaren elementu baliosuak babesteko moduz, alegia, arkitektura-konposizioaren aldetik begiratuta kontserbatzea merezi zuten elementuak babestu, zaindu eta berreskuratzea».

Udalaren esanetan babesa ziurtatuta dago, Arau Subsidiarioen katalogoan sartuta baitago. Eraikina erabilera berrira egokitzeko, beharrezkoa da «ez bakarrik bertako balioak errespetatzea, baizik eta arkitektura aldetik interpretazio berri bat egitea», horrela moldaketa erraztu eta «haren arkitekturaren balioa handitze».

Erantzuna

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak, ordea, beste era batera ikusi du Artzabalen balioa. Higiezinaren balorazioari dagokionez, alegazioei honako hau erantzun die: «Baserriari buruzko dokumentu-

rik argitaratuta ez egoteak ez du esan nahi, inola ere, bere interesa tokikoa baino ez dela. Irizpide hori ez da giltzarria gure baserrien kultur interesa baloratzerakoan. Bestalde, XVIII. mendekoa izateak ere ez du esan nahi garrantzi handiagoa edo txikiagoa duenik, datazioa da besterik gabe; alegia, higiezinaren denboran kokatu eta tipologia garaikide batzuen aldean baloratzea. Eta balorazio hori dagoeneko egin dago, eta Euskal Kultura Ondarearen Inventario Orokorrean sartzeko adinako interesa duela uste da».

Horrez gain, babestu beharreko baserri gehienetan bezala, bere kultur interesa baloratzeke garaian baserri honen balio artistikoa ere irizpide giltzarri bat ez dela argudiatzen du. «Edonola ere, aintzat hartu beharreko balioa da, ondasuna zein baserri-motari dagokion zehazteko eta babesarabide jakin bat ezartzeko. Oso urriak dira gure baserrietako adierazpide kultu artistikoak, oro-

korrean apaindura gutxi estilo soila baita nagusi».

Kultura sailaren esanetan Artzabal baserriak zalantzarik gabeko interesa du gure kultura ondarearentzat, eta egoki betetzen ditu Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 16. artikulua ezartzen dituen baldintzak Euskal Kultura Ondarearen Inventario Orokorrean sartzeko.

Zuzeko bilbatura duten euskal baserri barrokoen artean ondo kontserbatutako ale bat omen da. Gipuzkoan XVIII. mende hasieran ohikoa zen baserri-mota baten antzekoa, zeinetan sagardoa egiteko dolarea lehen solairuko atzealdean jartzen baitzen. Egitura barrokoa du, kalitate handikoa, eta jatorrizko bolumenari eutsi dio ia aldaketarik gabe gaur egunera arte.

Beste alde batetik, elementu bat oso bereizgarria omendu: Zutoin toskanar batean sostengatzen den ataripea, albo batean jarria. Elementu hori ez da batere ohikoa Gipuzkoan: Bizkaian, ordea, nahi-

ko ugaria da; areago, XVII. eta XIX. mendeen arteko nekazaritza arkitekturaren ezaugarri nabarmena izan zen; Arabako iparraldean (Aiara), Nafarroan eta, neurri txikiago batean, Lapurdin ere zabaldu zen. Gipuzkoan, esan bezala, oso urriak dira horrelako ataripeak dituzten baserriak.

Izan dituen aldaketek, esan beharra dago funtsean lehenengo solairuko atzealdeko forjatua kendu dela eta bao batzuk ireki direla. Aldaketa horiek jakinak ziren Eusko Jaurlaritzaren esanetan eta aintzat hartu ziren babes-proposamena egin zenean. Hala eta guztiz ere, ez dira oztopo izan oro har 7/1990 Legeak ezartzen duen maiako balorazio positiboa jaso dezan.

Kontserbazioa

Oraingo egoerari dagokionez, ondo iruditzen zaio Kultura sailari Usurbilgo Udalak jadanik bere jatorrizko erabilera galdu duen baserri bat eginkizun berriz hornitzea. Erabilera dela eta, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 23. artikulua dio sailkatutako eta inbentarioan sartutako ondasunei ematen zaien erabilera bermatu beharko duela haien kontserbazioa. Eta horrek esan nahi du kontserbazioa lehen-tasuneko dela, eta, hortaz, erabilera horretara egokitu behar direla (ez alderantziz). Ekipamendua, printzipioz, bateragarria da higiezinaren kontserbazioarekin, ez du zertan kolokan jarri baserria.

Babesari dagokionez, lehenik Usurbilgo Arau Subsidiarioetan jasota baitago, Eusko Jaurlaritzak dio nahikoa izango dela baldin hirigintza planeamenduko dokumentu horretan jaso badira Kultura Sailak Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen bidez inbentariatutako monumentu gisa deklaratzeko aurreikuspenari begira egindako gomendioak betetzea.

Honela bada, Artzabal baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izandapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Udalarik bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitzea eskatzen dio Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez. Hala ere, udalak berraztertze errekurtoa jarri dezake hilabeteko epean. ■

Artzabalen zahar egoitza

DV

Artzabal baserria Zahar Egoitza bihurtzea da udalaren gaur egungo asmoa. Duela gutxi onartu zen 2006ko udal aurrekontua eta proiektu hau da aurtengo inbertsio nagusienetakoa bat. 675.000 euroko diru partida bideratu dute egitasmo honetarako eta obra aurten hastea da udal gobernuren asmoa.

Gure Pakea zahar egoitzak kaxkoan duen gaur egungo kokalekua txiki gelditu dela uste dute, gaur egun 1.000 bazkide inguru baititu elkarte honek. Honela, 3. adinekoen zerbitzurako jarri nahi du udalak Artzabal baserria. Zahar egoitza edo etxe modura egokitzeko egitasmoa aurrera eramanda nahi dute bertan. Etorkizunean gero eta adineko jende

gehiago egongo dela eta arlo honi erantzun bat eman nahian bideratu nahi dute proiektu hau. Horregatik, Jaime Abalos arkitektoa proiektuaren idazketa egiten ari da dagoeneko.

Aurreko legegintzaldian, ordea, beste egitasmo bat zuen udalak Artzabal baserriarentzat. Hiri Antolakuntzako Arau Subsidiarioetako 4. sektorea (Artzabal) garatzearen truke, Artzabal baserria Udalaren ondasun bihurtu zen eta baserri hau 'Sagardo etxea' bihurtzeko asmoa azaldu zuen. Honen osagarri modura inguru horretako beste lokal bat ere eskuratu zuten 2003. urteko apirilean.

2003. urteko ekainetik udal gobernua, ordea, asmo hori baztertu eta Artzabalen zahar egoitza jartzeko asmoa ekarri zuen.



Udalak Zahar Egoitza kokatzeko asmoa du bertan. [JOSU ARANBERRI]

Izan ere, horixe zen Eusko Alkartasuna alderdiaren egitasmoetako bat. Horregatik, proiektu hau aurrera eramateko pausuak ematen hasi dira dagoeneko.

Pasa den apirilaren 12an izan zen XXV. Sagardo Egunaren aur-

kezpenean Sagardo Egunaren Lagunak taldeko Jakoba Errekondok Sagardoaren Museoa jartzeko toki egokia Artzabal baserria dela esan zuen.

Bere esanetan, beraien ustez Sagardoaren museoa egitea oso

garrantzitsua da. «Honen ideia Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkartetik bota zen duela 22 urte inguru eta oraindik ere Sagardoaren Museoa egin beharra dagoela pentsatuz jarraitzen dugu. Garai hartan Astigarragan egin behar zela esaten genuen, orduko sagardoaren gainbeheran Astigarraga baitzen horri eusten zion toki bakarra. Gaur egun defendatzen dugu Usurbilen jarri behar dela. Duela bost bat urte proiektu burututa dago, udalak egin zuen proiektua. Sagardoaren museoa Artzabal baserrian kokatzeko proiektua zen hura, barroko garaiko tolarre-baserrian eta gure ustez horretara bideratu beharko litzatekeena. Gure ustez Usurbilen etorkizun ekonomikoa eta kulturaren inguruko zerbitzuen aukera ikaragarri zabalduko luke. Hor daukagu denontzako erronka».